



Pirinioetako Lan Elkartek (PLE) Pirinioetako mugan gertatzen diren eta egunero milaka pertsonari eragiten dieten arazoak aipatu ditu

- **Urtarrilaren 19an, Bartzelonan, Frantziaren eta Espainiaren arteko goi-bilera egingo da, eta une egokia izango da bilera hori, hain justu, mugako eremu horretan partekatutako arazoetarako soluzio bateratuak bilatzeko.**
- **Pirinioetako Lan Elkartea (PLE) mugaz gaindiko partzuergoa da, eta lurraldea garatzeko eta bertako biztanleen bizitza hobetzeko egiten du lan.**
- **Pirinioetako zazpi lurralde mugakidek osatzen dute PLE: Euskadi, Nafarroa, Aragoi, Katalunia, Akitania Berria, Okzitania eta Andorra.**

Jaca, 2023ko urtarrilaren 18a. Pirinioetako Lan Elkartek (PLE) mahai gainean jarri ditu Pirinioetako biztanleek urtarrilaren 19an Bartzelonan egingo den Frantziaren eta Espainiaren arteko goi-bilera dela-eta egunero bizi dituzten arazoak eta mugak.

Ildo horretan, PLEk uste du goi-bilera horrek aukera ezin hobea ematen duela iazko azaroaren 30ean Arantzazun (Gipuzkoa) egindako 40. Osoko Bilkuran lortutako erabaki nagusiak aintzat hartzeko. Ekitaldi horretan, PLE osatzen duten zazpi lurraldeetako (Euskadi, Nafarroa, Aragoi, Katalunia, Akitania Berria, Okzitania eta Andorra) ordezkariak presidenteen Adierazpena onartu zuten. Adierazpen horretan honako akordio hauek jasotzen dira, besteak beste:

- Frantziako agintariek 2021eko urtarriletik blokeatuta dituzten mugako pasabideak ireki beharra. Aldarrikapen horren aldekoak dira, zeharo, mugaz haraindiko guneko eragileak, inplikaturik baitaude eta ondo baitakite beharrezkoa dela mugaz haraindiko herritartasun erabat integratu baten eraketan sakontzen jarraitzea.
- Mugaz Gaindiko Lankidetzako Europako Mekanismoa (ECBM) zehaztu eta aplikatzeko premia saihestezina, Pirinioez gaindiko lurraldeak aurre egin beharreko lege-eta administrazio-oztopoak konpontzeko lagungarria izango den baliabide gisa. Nola Espainiako eta Frantziako estatuei hala Europako Batzordeari bide hori jarraitzeko eskatzen zaie, eta adostasuna lortzen saiatzeko.
- babestea, batetik, energia-horniduraren jatorriak dibertsifikatzen lagunduko duten Pirinioez gaindiko azpiegituren garapena, eta bestetik, energia-iturri berriztagarrien bidez (hidrogeno berdea eta biometanoa, esate baterako)

deskarbonizazioa sustatzea. Gainera, Osoko Bilkurak eskualdeak eta autonomia-erkidegoak erabakiak hartzeko prozesuetan sar daitezela eskatzen du.

- Pirinioez gaindiko lankidetzaren protokolo bat bultzatzeko bere konpromisoa, hidrogeno berriztagarria sustatzeko, hidrogenoaren ekonomia hedatzeko mugaz gaindiko espazio bat sortze aldera, lurraldeen posizionamendua indartuta eta Estatuko eta Europako estrategietan ezarritako deskarbonizazio-helburuak lortzeko aukera emanda.

Adierazpen osoa –gai horiek guztiak agerian jartzen dituen– PLEren webgunean dago eskuragarri:

- Euskaraz https://ctp.org/wp-content/uploads/2023/01/DECLARACION_CONSEJO_PLENARIO_2022_VF_EU.pdf
- Espainolez https://ctp.org/wp-content/uploads/2023/01/DECLARACION_CONSEJO_PLENARIO_2022_VF_ES.pdf
- Katalanez https://ctp.org/wp-content/uploads/2023/01/DECLARACION_CONSEJO_PLENARIO_2022_VF_CA.pdf
- Frantsesez https://ctp.org/wp-content/uploads/2023/01/DECLARATION_CONSEIL_PLENIER-2022_VF_FR.pdf
- Okzitaniaraz https://ctp.org/wp-content/uploads/2023/01/DECLARACION_CONSEJO_PLENARIO_2022_VF_OC.pdf

PLEko kideek uste dute Espainiako eta Frantziako gobernuen arteko bilera aukera bikaina dela gai horien inguruan bi estatuen arteko harremanak sendotzeko, eta adierazi dute prest daudela, bakoitzak bere eskumenetik, Pirinioetako lurraldeen lehentasunetan aurrera egiteko eztabaidan eta lankidetzan aritzen laguntzeko.

Garapen bateratu eta jasangarri baten alde elkarrekin

Pirinioetako Lan Elkarteak (PLE) nazioarteko partzuergoa da, Pirinioetako mendigunea garatzen laguntzeko helburu nagusia duena, haren erronkak kontuan hartuta, haren aberastasunak zainduz eta lurraldeen arteko lankidetzaren sustatuz, bereziki, bere lurraldeetako biztanleen bizitza hobetzeko mugaz gaindiko lankidetzaren.

PLEko kideak Pirinioetako lurraldeak dira: Akitania Berria, Okzitania, Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Euskadi eta Andorrako Printzerria.

PLE 1983an sortu zen, Europako Kontseiluak lagunduta. Europako Kontseiluak Pirinioetako eremua mugaz gaindiko lankidetzaren egituraz hornitu nahi du, Europako beste muga batzuetan daudenen antzera.

2005ean, PLE partzuergo bihurtu zen, Espainiako zuzenbide publikoari lotutako erakunde juridiko, eta beste bultzada bat eman zion esku-hartzeari dagokionez, batez

ere funtsen kudeaketaren eta Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2021-2027), POCTEFA 2014-2020 eta POCTEFA 2007-2013 programen esparruan.

Argibide gehiago nahi izanez gero

Cristina Igoa

c.igoa@poctefa.eu

Komunikazio-arduraduna

Pirinioetako Lan Elkartea